



KONTINGENTZIA PLANA

ETA

KURTSO HASIERAKO ESZENATOKIAK

2020-21 IKASTURTEA

EGUZKITZA BHI

2020/09/01

AURKIBIDEA

1.SARRERA

2. PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

3. IKAS-IRAKASKUNTZA PROZESUARI ERAGITEN DIOTEN NEURRIAK

3.1.CURRICULUMAREN FUNTSEZKO ALDERDIAK

3.2.HIRU AGERTOKI DESBERDINETARAKO IKAS-IRAKASKUNTZA PLANA

3.3.GAITASUN SOZIO-EMOZIONALAK ETA TALDE KOHESIOA

3.4. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK

3.5 . EUSKARA INDARTZEA

3.6. TUTORETZA ETA HARREMANAK

3.7. OSASUN MENTALA ETA ONGIZATEA

3.8. BERARIAZKO ARAUDI DIGITALA

4.ESKOLA ZERBITZUETAN APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

5.COVID-19 KASUAK SORTUZ GERO JARDUTEKO PLANA

1.SARRERA

Dokumentu honen helburua da COVID-19aren aurrean ikastetxean abian jarriko ditugun prebentzio neurriak zehaztea eta ezagutaraztea.

HELBURUAK:

1. Irakaskuntza presentziala berrabiarazteko orduan, pertsonen segurtasuna eta osasun baldintzak bermatzea.
2. Birusa kutsatzea eta zabaltzea saihesteko, ikastetxean COVID-19aren prebentzioa, detekzio goiztiarra eta kontrola ziurtatzea.
3. COVID-9aren aurrean, ikastetxeko langileen osasuna bermatzeko prebentzio neurriak eta jarduerak ezagutaraztea.
4. Alerta zaintzea eta mantentzea, neurrien izaera dinamikoa aintzat hartuz eta osasun agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratu daitezkeela kontuan izanik.

Bizi dugun larrialdi egoerak Hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzukidetasuna eskatzen du, kutsatzeko arriskuak minimizatzeko eta bizi dugun osasun-larrialdiaren ondoren ikastetxean ohiko jarduera berreskuratzeko.

Kontingentzia Plan hau hainbat dokumentu kontuan hartuta sortu dugu:

- Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo orokorra (2020-21 ikasturtea)
- Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEo ikastetxeetan, COVID-19aren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko (2020-2021 ikasturtea)
- Kurtso Hasierako Ebazpena.
- 2020-21 ikasturte hasierarako Hezkuntza Sailak eta Osasun Sailak elkarlanean prestatu duten Jarduketa-protokolo Osagarria
- Eguzkitza BHIko 2019-2020 ikasturte bukaerako prebentzio-neurrien plana

2. PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

1) Segurtasun-tartea:

1,5mko segurtasun-tartea mantentzea pertsonen artean, ahal den neurrian.

2) Musukoa:

Maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da ikastetxean, bai eta jolaslekuan ere. Eskola-garraio kolektiboan ere nahitaez erabili beharko da. Soilik jangelan, elikagaiak hartzen direnean ez da erabili beharko. Institutuak musukoak izango ditu ikasleentzat eta ikastetxeko langileentzat. Ikasleek nork bere maskara eraman beharko du, baina ikastetxeak maskara bat bermatuko die, ikastetxera sartzean maskara hori faltan duten ikasleei.

3) Eskuen higiena:

Ikastetxean sartzen den guztiak eskuak garbitu beharko ditu sarreran egongo diren xaboi edo desinfektatzaileekin. Ikasgeletan eta komunetan ere egongo da xaboi edo desinfektatzailea eta papera. Ikasle eta langileek higiena zaindu dezatela azpimarratuko da.

4) Aireztatzea:

Gelak maiz aireztatuko ditugu. Irizpidea, klase bakoitzaren bukaeran lehioak 5´ irekitzea izanen da. Jolas garaian ere irekita utziko dira.

5) Gela bereziak (tailerrak, laborategia, gimnasioa, informatika-gelak):

Ikasleek eskuak garbituko dituzte lanean hasi aurretik, hidroalkoholarekin. Klase hasieran eta bukaeran ikasleak arduratuko dira erabiliko duten materiala desinfektatzeaz beti ere irakaslearen gain begiradapean. Ezingo dira dutxak erabili.

6) Garbiketa eta desinfekzioa:

Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-programa trinko baten bidez, egunero egingo da. Horretarako giza-baliabideak jarrita daude.

7) kontaktu-kopurua murrizteko:

Kokapen aldetik ikasleak banaka jarriko ditugu talde guztietan. Ikasle bakoitzak beti mahai bera erabiliko du, bikoizketetan ere bai. Bikoizketetan ikasleek erabilitako mahaiak garbituko dituzte. Bikoizketetarako erabiltzen diren geletan, material guztia jasoa utziko dute ikasleek. Bakoitzak bere materialen txukuntasuna bereziki zainduko du.

Ikastetxean zehar desplazatzeko zehaztutako ibilbideak erabiliko dira. Ikastetxea nolabait, mailaka sektorizatua dago. Hau da, ikastetxe zein patioko antolaketa, maila ezberdinetako ikasleen nahasketa ekiditeko pentsatuta dago. Irteera eta sarrerari dagokionez, maila bakoitzeko ikasleek eskailerak paretaren aldetik jeitsi egingen dituzte. Aldia, sarrerak barandila aldetik igoko dituzte.

Ikasleek beraien eskola-materialak ez dituzte konpartituko.

8) Sarrerak eta irteerak:

Ikastetxea 7:50tan irekiko da, ikasleak banaka sartuko dira eta sartzekoan tenperatura hartuko zaie eta eskuak desinfektatuko dituzte. Modu mailakatuan sartuko dira iristen diren heinean, ikasgelak irekiak egongo dira eta ikasle bakoitza bere gelara joango da eta bere lekuan eseriko da. Solairuetako korridorean irakasle arduradun bat egongo da.

Ikasleen sarrera eta irteera orduak eta espazioak ulertzeko, ikusi **1.ERANSKINA**.

9) Ordu aldaketak:

Ikasleak gela batetik bestera mugitu behar badira, korridorean zein eskaileretan, eskubitik joango dira, eta markatutako ibilbideak jarraituko dituzte. Hala ere, ikasle-taldeen joan-etorriak murriztuko dira. Ahal denean, txirrinak jotzen duenean hurrengo orduko irakaslea kanpoan egongo da itxoiten. Ikasleek ezingo dute klase tarteetan korridorera atera. Zaintzako irakasleak korridoretan egongo dira.

10) Jolas garaiak

Modu ordenatuan jaitsi eta igoko gara patiora/ tik **1.ERANSKINEAN** azaltzen den bezala. Patioa eremu desberdinetan banatuko da eta maila bakoitzari eremu bat esleituko zaio. Eremuak txandakaturaz joanen dira. kontaktu jolasak edo urruntze sozialerako aukerarik ematen ez dutenak saihestuko ditugu. Eguraldi txarra (euria) dagoenean ikasleak beraien gelan geratuko dira (zaintza hauetarako irakasleekin ordutegi berezi bat antolatu da) eta egun bakoitzeko maila bat bakarrik atera ahal izanen da aterpean egoteko. Aterpean egoteko aukera duen maila hau, txandakaturaz joanen da egunetik egunera.

11) Komunak erabilera:

Ikasleak ikastorduetan joango dira, ordu-aldaketetan ezingo dira joan, pilaketak ekiditeko. Komunak binaka erabiliko dira, itxaronaldian pertsonen arteko distantzia mantenduz. Irakasle bakoitzak komunera joaten diren ikasleen izena apuntatu beharko ditu horretarako prestatuko dugun excel batean. Jolas garaian soilik patioko komunak erabili ahal izango dira. Hauetan ere binaka sartu ahal izango dira.

12) Jangela

Jangela-zerbitzua egongo da 1 eta 2 agertokietan. Jankideen artean 1,5mko distantzia bermatuko da eta horretarako behar izanez gero txandak egingo dira. Mahaietan gelakideak kokatzea lehenetsiko da. 2.agertokian, hezkuntza- edo gizarte-kalteberatasun berezia duten ikasleentzat erabilera mugatuko da.

13) Bilerak:

Batzen edo bilera jendetsuak saihestuko ditugu. Urruntze eta higiene-neurriak betetzen ez dituzten ekitaldirik ez da egingo.

14) Ikastetxera etortzen diren bisitarien kopurua mugatu:

Ikastetxera etorriko diren pertsonen kopurua mugatuko da. Hori dela eta gurasoak ikastetxera etorri nahi badute, deitu eta ahal den neurrian hitzordua jasoko dute.

Lehentasuna emango zaio e-mail eta telefono bidezko komunikazioari.

15) Administrazioako langileak:

Leihatilara hurbiltzen direnekin materialik ez dute partekatuko.

16) Irakasle gela:

Gela hau, mintegietan tokirik ez baldin badago erabili ahal izango da lana egiteko.

17) Jarraipen-batzordea:

Jarraipen-batzordea sortuko da. Partaideak: zuzendaria, lan-arriskuen arduraduna, OOGko kidea eta 3 irakasle bat.

3. IKAS-IRAKASKUNTZA PROZESUARI ERAGITEN DIOTEN NEURRIAK

3.1. CURRICULUMAREN FUNTSEZKO ALDERDIAK

-Mintegi guztietan programazioetan lehenengo saioak ikasleen diagnostikoa egiteko aurreikusita daude. 1.mailako ikasleekin gainera, iraileko lehenengo asteetan baliabide digitaletan trebatzeko saioak aurreikusita daude.

-Curriculumaren funtsezko alderdiak lantzeko Berritzegunetik bidalitako dokumentua mintegiek eskuragarri dute programazioetan behar diren egokitzapenak egin ahal izateko, edukietan zein ebaluazio irizpideetan.

-Egungo egoera dela eta, 2019-2020 ikasturteko esperientziatik abiatuta, irakasleen beharrak asetzeko, Moodle, Meet eta beste hainbat tresna digitaletan trebatzeko formakuntza saioak antolatu dira.

3.2. HIRU AGERTOKI DESBERDINETARAKO IKAS-IRAKASKUNTZA PLANA

Hezkuntza Sailak kurtso honetako ebazpenean 3 agertoki buruan izatea eskatzen zigun:

1. AGERTOKIA	<i>aurrez aurreko irakaskuntza-jardueraren garapen normalizatua dakar.</i>	A PLANA
2. AGERTOKIA	<i>bitarteko egoera bat, ikastetxeak irakaskuntza-jardueraren antolamendu malgu batera behartzen dituena, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko, etapa, ikasturte edo ikasle jakin batzuen presentzialtasuna lehenetsiz.</i>	B PLANA
3. AGERTOKIA	<i>konfinamendua eta hezkuntza-jarduera ez-presentziala eskatzen ditu.</i>	C PLANA

**GU IKASTETXE BEZALA ETA HEZKUNTZA PROFESIONAL BEZALA HONI
ERANTZUNGO DIOGU!**

<p style="text-align: center;">A PLANA</p> <p style="text-align: center;">Klaseak aurrez aurre, itxialdi ostean</p>	<p style="text-align: center;">B PLANA</p> <p style="text-align: center;">Klase bertaratze malgua, itxialdi ostean</p>	<p style="text-align: center;">C PLANA</p> <p style="text-align: center;">Itxialdia</p>
<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasgai guztiak kurtso guztietan Moodle/ Classroom ikastaroa izango dute. ● Ikastaro horretan urriaren 30-erako programazioak ikasle eta familientzako eskuragarri egongo dira. ● Irakasle bakoitzak bere ikasgaiaren eta bere ikastaldearen arduraduna denez edozein agertokian ikasleen jarraipena egingo du, behar izango balitz ikasleen etxera ere deituko du tutorearekin honetaz hitz egin ostean. Puntu hau bereziki garrantzitsua izango da jardunaldi mistoan eta itxialdian. ● Egoera emozionaleraz jabetu, propioak eta taldearenak eta horietara egokitu. ● Ikasleekin lotura bultzatu ikastetxearekiko atxikimendua garatzeko, B plana eta C plana hobeto funtzionatuko dute hau lortuz gero. ● Aurreko ikasturteko hutsuneak kontuan izan. ● Ebaluatzeko modu anitzak, osagarriak eta era guztikoak planteatu. Horien arteko oreka sustatu eta kalifikazioan duen portzentaia orekatsua izan dadin bultzatu. Emandako saio kopuruen eta ebaluazioaren arteko oreka mantendu baita kalifikazioan ere. 		
<ul style="list-style-type: none"> ● Betiko klaseak emateko aukeraz gozatu, disfrutatu eta etekina atera. ● Ikasleekin lotura eta atxikimendua sustatu horiek baitira beste Planetan eraginkorrak izateko gakoa. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Taldeak bitan zatituko ditugu. Zatiketa hau egiterako garaian beharrak kontuan izan ditzakegu aniztasun irizpideak kontuan ditugularik. ● Taldeak 15 ikasle baino gutxiago baditu,, behar handiagoa duten ikasleen presentzia bermatuko da. ● Asteka antolatuko gara ● Gure bilerak mantenduko dira eta egoerara egokituko ditugu presentzialak/ online.... ● Ebaluazioa egoerara egokituko dugu. ● Etxean dauden ikasleak beren kabuz aritzeko jarduerak izango dituzte eta klasean daudenak aurrez- aurrekoa jasoko dute. ● Flipped classroom, bideoak,.. erabili ahal izango dira. ● Klaseko saio bat erabili ahal izango da etxean daudenei kuku bat egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Gure klase orduen %50ean ikasleekin zuzenean konektatuko gara gutxienez. ● Egoera emozionalari atentzio eta ardura berezia eskainiko diogu. ● Besteengandik hoberena pentsatuko dugu beti. ● Gure bilerak mantenduko dira eta Calendarrean jarritako meet linkaren bidez. ● Ebaluazioa egoerara egokituko dugu. ● Hezkidetza balioak kontuan hartu eta etxeko bizikidetza baikorra sustatzea bultzatu

3.3.GAITASUN SOZIO-EMOZIONALAK ETA TALDE KOHESIOA

Berritzegunetik alderdi sozio-emozionalak eta talde kohesioa lantzeko bidalitako materiala aztertu ondoren, Orientazio mintegiak tutoretza saioetan aurrera eramateko hainbat jarduera prestatu ditu. Horretarako DRIVEN tutoreentzako Koordinazio Karpeta sortuta dago.

3.4. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK

Aurretik aipatu den bezala, Hezkuntza-premia bereziko ikasleen presentzialtasuna lehenetsiko da, beti ere osasun-agintarien jarraibideen arabera, eta familiei jakinaraziko zaie ikastetxera joateko baldintzak zeintzuk diren (ordutegiak, zerbitzuak, higiene-neurriak, etab.)

3.5 . EUSKARA INDARTZEA

Orokorrean ikasle guztiek, baina batez ere ingurune erdalduna dutenek Covid-19ak hizkuntza gaitasunean izan duen eragin kaltegarria hobetze aldera, euskara-mailan galera izango dutenez, hainbat jarduera planteatuko dira euskara indartzeko, besteak beste, Hauspoan errefortzuak eskaintzea.

3.6. TUTORETZA ETA HARREMANAK

Orientazio mintegiak bere programazioan tutoretza saiotan aurrera eramateko jarduerak prestatu ditu gai hauen inguruan:

- Ikasleen betebeharrak egoera berri honetan: guztion ongizatea babesteko ezarri diren arauak errespetatzearen garrantzia (maskara jantzi, eskuak garbitu, garbitasunerako materiala zaindu, distantzia mantendu, sarrera egokia erabili ...).
- Ikasleen arteko kooperazioa sustatzeko estrategiak (online agertokian ere).
- Talde kohesiorako dinamikak.
- Enpatia lantzeko eta sentimenduak adierazteko dinamikak.
- Estresaren kontrola.
- Emozioak lantzeko jarduerak.

3.7. OSASUN MENTALA ETA ONGIZATEA

Tutoreak arreta berezia jarriko dio arazo emozionalak detektatzeari eta familiarekin harremanetan jarriko da informazioa kontrastatzeko eta ahal duen neurrian, behar den kasuetan, laguntza ezberdinei buruzko informazioa emango die.

3.8. BERARIAZKO ARAUDI DIGITALA

"Irakasleen baimenik gabeko edozein grabaketa egitea eta hau sare sozialen bidez (Whatsapp, Youtube, Instagram,...) edo Interneteko beste baliabideen bidez zalbaltzea falta larritzat joko da. Izan ere, ekintza hauek salatu daitezke. Falta larri honek jarreraren kontzeptua ez gainditzea dakar, honezkero ikasgaia suspendituta egongo da. Hau horrela izango balitz, ikasgaia berreskuratzeko falta onartu, egindakoaren inguruko hausnarketa burutu, erreparazio modua adostu eta aurrera eraman beharko da."

4.ESKOLA ZERBITZUETAN APLIKATU BEHARKO NEURRIAK

- Autobus zerbitzua:
 - Ikasle guztiek maskara erabiliko dute.
 - Autobusetik ikastetxean sartzeko, horretarako baliatuta dituzten norabideetatik joanen dira.
- Jangela zerbitzua:
 - Jantokian distantzia bermatu ahal izateko aforoa murriztuko da.
 - Ikasleekin eskuak garbitzeko protokoloa landuko da eta informazio grafikoa jarri da.
 - Ikasleek jangelan dauden bitartean ere prebentzio arau orokorrak bete beharko dituzte.
 - Eskolako jangela arduradunak: maskarillaz gain, pantaila bat jarriko dute jangelan egongo diren denboran.

5.COVID-19 KASUAK SORTUZ GERO JARDUTEKO PLANA

COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.

Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.

Ikastetxean COVID-19ekin bateragarria den sintomatologia, duten pertsona guztiak aurreikusitako jarduketa-protokolo bat jarraituko dute:

- a. Horretarako prestatutako isolamendu-gela batera (bilera gela) joango dira (maskara jarrita). Gela honek higie eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- b. Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta maskara.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo ikastetxean Covid-19ren prebentzioaren ardura duen pertsona familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
- e. Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, isolamenduan jarriko da (maskara jantzita) eta etxera joango da IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinarazi ondoren; zuzendaritzak Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- f. Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko

zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailekoari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.

g. Eragindako pertsona kasu susmagarritzat joko da, eta etxean isolatuta egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan adierazitakoaren arabera.

h. Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorrotzuz.

Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

Kasuak baieztatuz gero:

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordezako erreferentearekin harremanetan jarriko da.

Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa ikastetxearekin koordinatuko da, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta COVID-19rekin lotutako alderdien erreferentziazko arduradunarekin. Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, ikastetxeko Zuzendaritza erreferentziako ESI-ko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da.

Kasua baieztatzen bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.

Ikastetxean harreman estuak identifikatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

A) Baieztatutako kasua bizikidetzatalde egonkor batekoa bada, harreman estutzat hartuko dira taldeko kide diren pertsona guztiak.

B) Konfirmatutako kasua ez bada bizikidetzatalde egonkor batekoa, ikastetxeko harreman estuak identifikatuko dira, ikastetxeko Zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan.

Zentroan lan egiten duten langileen esposizioaren balorazioa kasu bakoitzaren arriskuaren ebaluazio espezifikokoaren arabera egingo da, SARS-CoV-2-ekiko esposizioaren aurrean Laneko Arriskuen Prebentzio-zerbitzuetarako Jarduketa-prozeduran jasotakoaren arabera; beraz, arrisku-kontaktutzat hartzeak prebentzio-neurrien jarraipen zuzena eta babes-elementuen erabilera baloratuko ditu (distantzia fisikoaren mantentzea eta maskara erabiltzea). Osasun Publikoko Zerbitzuak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin batera, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko langileak kasu baieztatuen kontaktu estutzat hartu behar diren, hartutako prebentzio-neurrien eta egindako jardueren egokitasunean eta jarraipenean oinarrituta.

Osasun-agintariek jarraipen aktiboa egingo dute estuztat identifikatutako kontaktuen artean, eta etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Sailaren COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan zehazten denaren arabera. PCR probak egitea barne hartuko da, Osasun Publikoko agintariek ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.

Gurasoei informazio-oharrak prestatuko zaizkie, eta familiei informazio egokia emango zaie berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas higieneko neurriak betetzeko, bai eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak garaiz identifikatzeko seinaleak ere.